

GURE HERRIARI

José Luis Insausti Urigoitia

Urtero bezala, aurten ere badatozkigu Madalena jaiak. Bizitzan badira une bereziak, gure bihotzetan lozorroan dauden maitasunak loratu eta berpiztarazten dituztenak. Eta zenbait data jakinek maite ditugun gizon-emakumeen oroimena esnarazten digute.

Oreretarra denarentzat urtean bada egun seinalatu bat, uztailaren 22a, Madalena eguna, alegia. Egun honetan Oreretar guztiok familia edota etxe berekoak sentitzen gara.

Zein lurretan sor daiteke gure ametsetako lorea, geure txokoan, Euskal Herriko bazter umil honetan, ez bada?

Halabeharrez urrundutako seme-alabek norberaren herria, etxea eta lurra samintasunez oroitzen dituzte.



Presondegiak, deportazioa eta erbestea direla kausa gure artean ez zareten Oreretarroi lasaitasun apur bat bidali nahi nizueke; izan ere, zuek herriminez gogoratzen dituzuen gauza berak oroitzen baititut neuk ere . Hala nola, familia, lagunak, jaiotetxeak, haurtzoroko lekutxoak...

Guztiori, gizarte zein politika arloan egindako lanaren ordainetan, mende aldatetak ideia eta ilusio berriak ekarrazi diezazkigun opa dizuet.

Orereta ospetsua dugu herri konprometitua, partehartzaila, sana eta alaia izateagatik. Beraz, zaindariaren ohorez, sendotu dezagun geure arteko adiskidantza eta Orereta zein Euskal Herriaren alde elkar lanari ekin diezaiogun, herriko jaiak guztion jaiak baitira.